

OSO GARRANTZITSUA

Nazioarteko mugikortasun-programaren batean (Erasmus, UPV-AL edo Beste Norakoak) parte hartzeko interesa baldin baduzu, honakoak dira ezer egin **AURRETIK** aintzat hartu behar dituzun funtsezko kontuak:

1.- **INFORMA ZAITEZ NORAKOEI ETA PARTE HARTZEKO ARAUEI BURUZ** nazioarteko mugikortasun programa baterako eskaera **EGIN AURRETIK**. Ahalik eta informazio gehien eta zehatzena izateak berebiziko garrantzia du prozesua ganoraz burutzeko eta gaizki ulertuak eta ezusteko desatseginak ekiditeko. Horretarako bi kontsulta-iturri nagusi dituzu:

- zure Ikastegiko Nazioarteko Harremanetarako koordinatzailea (galdetu zure idazkaritzan nor den).

- Graduondoko Ikasketak eta Nazioarteko Harremanen Arloko Errektoreordetzaren web orria: <http://www.ehu.es/eu/web/nazioarteko-harremanak/home>

2.- **ARRETA HANDIZ IRAKURRI** mugikortasun programa ezberdinei buruzko informazioa. Erreparatu bereziki plaza bat lortzeko bete behar dituzun **baldintzei (ikus deialdia)**. Kontuan hartu Ikasketak eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzak ezarri eta UPV/EHUko ikasle GUZTIEK bete behar dituzten baldintza orokorrez gain, **Ikastegi bakoitzak bereak dituela** eta horiek murriztaileagoak izan daitezke (inoiz ez orokorrak baino malguagoak).

3.- Zure eskaera egin aurretik **ZIURTATU** interesatzen zaizun/zaizkizun unibertsitatean/etan zure titulazioko ikasketak eskaintzen direla (ez da beti hala gertatzen). Horrez gain, kontsulta ezazu haien egutegi akademikoa (Latinoamerikako unibertsitateen kasuan ez da gurea bezalakoa) eta zein iraupen duten eskainitako plazak (lauhilekoak edo ikasturte osokoak).

4.- **ARRETA BEREZIA** jarri hizkuntza-betebeharrei inorako eskaera egin aurretik. Kasu askotan **ezinbesteko baldintza** da aukeratua izateko. **Unibertsitate askotara joateko beharrezkoa da bertan ikasketak eskaintzen diren hizkuntzaren gaitasun nahikoa, ona edo oso ona**. Galdetu zure Ikastegiko Nazioarteko Harremanetarako koordinatzaileari.

5.- Gogorarazi, Erasmus programan, ziklo bakoitzeko (gradu, master, doktorego), 12 hileko mugikortasuna egin dezakezula. Egin litezken 36 hilabete horietatik SEPIEK **ZAZPI HILABETE bakarrik finantzatuko dute ikasturte bakoitzeko**.

6.- Nazioarteko Harremanetarako web orrian "ESKAERA NOLA EGIN. URRATSEZ-



URRATS" izeneko atalean duzu azalduta, xehetasun osoz, nola egiten den eskaera (beti GAUR bidez, **INOIZ EZ** paperean).

7.- Nazioarteko Harremanetarako Bulegoak ikasle@ehu.eus kontua erabiliko du nazioarteko mugikortasun programekin zerikusia duen edozer komunikatzeko. Beraz, ohitu zaitez kontu hori erabiltzera. Gainera badakizu, helbide horretan harturiko mezuak zure helbide pertsonalera bideratu ditzakezula.

8.- Europar Batasunak erabaki du ez onartzea Suitzaren parte hartzea Erasmus+ programan.

<http://www.oapee.es/dctm/weboapee/erasmus/formularios/informacion/e-015-2014-participation-of-switzerland-in-erasmus.pdf?documentId=0901e72b818a1a8a>
Suitzako unibertsitate batzuek jakinarazi digute UPV/EHUrekiko lotura mantentzen segitu eta gure ikasleen mugikortasuna finantzatu nahi dutela. Hala ere, mugikortasun horiek ez dira inolaz ere ERASMUS+ mugikortasuntzat joko, beraz, suitzar unibertsitateena salbu, ez dute inolako finantziatorik jasoko SEPIEren aldetik.